

ROGAINE



BERASTEGI

Cipuzkoako VI. rogainea

ORDU

8

HORAS

ORDU

3

HORAS



gotorientazioa.org/rogaine-berastegi

EKAINAK

21

JUNIO

2025



Kolore honetan, hasierako buletinarekiko aldaketak eta nobedadeak

1. AURKIBIDEA

1. Aurkibidea	2
2. Aurkezpena	4
3. Lehiaketa	6
4. Kokapena	8
5. Egitaraua	10
6. Kategoriak	11
7. Izen-emateak	13
a. Kronometroja	14
8. Araudia	16
a. Taldeak	17
b. Puntuazioa eta penalizazioa	18
c. Derrigorrezko materiala	19
9. Informazio teknikoa	21
10. GPS bidezko jarraipena	30
11. Zerbitzuak	31
12. Epaimahai teknikoa	31
13. Ostatuak	31
14. Organigrama	32
15. Laguntzaileak	33

AZKEN BERRIAK:

- ★ Bero handiko aste baten ostean, larunbatean tenperatura nahiko altua izaten jarraituko du. Hori dela eta, ur dexente eramatea aurreikusi dezazuen eskatuko dizuegu. Hala ere, **ur edangarria topatu duzuen 19 leku** izango dituzue mapan, beroari aurre egin ahal izateko. Estrategia diseinatzeko orduan, ur hornidura puntu horiek aintzat hartu, uneoro ur kopuru egokia eduki ahal izateko.
- ★ **Parking-a.** Arren eskatzen dizuegu antolakuntzako kideen argibideak errespetatzea, aparkalekuak modu egokian bete ahal izateko. Berastegi herri txikia da eta ez dago leku askorik. Ostiralean etorriko diren autokarabanekek eliza ondo aparkalekuan aparkatu beharko dute. [Ikusi mapa](#)
- ★ **Afaria.** 8 orduko parte-hartzaileek euren tresnak ekarri beharko dituzte jan ahalizateko (platera, sardexka, koilara, koilaratxoa, edalontzia). Ez da egongo behinerabiltzeko baxerarik.
- ★ **Elikagaiei intolerantziak.** Afariko menua boloniar-saltsa duen pasta platera izango da, eta postrea jogurta. Parte-hartzailearen batek elikagairen bati intolerantzia izanez gero, antolakuntzarekin harremanetan jarri helbide honetan: info@gotorientazioa.org
- ★ **Debekatutako gunean eta gune pribatuak** ezingo dira zeharkatu. Gune horietan sartzen den taldea kanporatua izango da.
- ★ **Kaparrak.** Udaberri oparo honetan, nabarmen ugaritu dira landaretza ugari dagoen eremuetan. Jantzera egokiarekin babestea gomendatzen dizuegu; baita uxagarri eraginkorren bat erabiltzea eta proba ondorengo azterketa sakona egitea.
- ★ **Hesitutako zelaiak.** Atakaren bat ireki behar baduzue, mesedez, pasatakoan berriro itxi. Inguruan ganadua egon liteke eta ihes egin dezakete.
- ★ **Hesiak.** Baten bat topatuz gero, saiatu horien gainetik ez pasatzen, gehiengoa ez baitago mapan irudikatuta. Estrategia eraginkorrenak bideak eta xendak erabiltzen dituztenak dira, eta ez hesitutako zelaietatik pasatzen direnak.
- ★ **Ganadua.** Lasterketa bitartean etxe-abereak topa ditzakezue. **ANIMALIAK EZ MOLESTATU** eta saihesten saiatu.

2. AURKEZPENA

Gipuzkoako VI. Rogainea Berastegiko bailaran antolatuko da, Tolosaldeako bihotzean, 2025eko ekainaren 21an. Era berean, 2025eko IbeRogaine Zilar Ligako hirugarren proba izango da.



Rogainea orientazioaren espezialitate bat da, non parte-hartzaileek estrategikoki aukeratu behar dituzten bisitatu beharreko kontrolak. Talde-lanean eta distantzia luzeko nabigazioan oinarritzen da, denbora-muga batekin. Taldeak 2 eta 5 pertsona arteko kidez osaturik daude.

Ibilbide aukeraketa librea da. Kontrol bakoitzak puntuazio jakina du, eta puntuazio bakoitza lasterketaren hasieran jakiten da. Eskaintzen diren mapetan kontrol guztiak azaltzen dira, eta baita kontrol bakoitzaren puntuazioa ere. Hori horrela, talde bakoitzak bere estrategia landu behar du, taldekideen gaitasun fisikoaren eta trebezia teknikoaren arabera.

Talde bakoitzaren helburua da ahalik eta puntu gehien lortzea, horretarako emandako denbora-tartean. Antolakuntzak emandako denbora-tartea gainditzeak, puntuak kenduko dituen penalizazioa dakar. Kontrolak proba jokatuiko den eremuan markatzen dira, orientazioko baliza baten bidez. Baliza bakoitza 30 cm X 30 cm-ko prisma triangeluarra da, kolore zuri eta laranja dituenak.

Orientazioan inoiz erabili ez den zonalde batean jokatuiko da proba. Batez ere **Berastegiko** herriaren lurretan kokatzen den **21 km²** hartzen dituen lur-eremuan jokatuiko da.

Berastegiko bailaran ohikoak dira pagoz eta haritzez osatutako baso hostotsuak; erreka-inguruak eta insignis pinua eta alertzea bezalako koniferen plantazioak han-hemenka azaltzen dira ere bai.

Herrigunea kokatzen den bailararen erdialdeko ordeka, hura "biltzen" duten medietatik bereizten da. Mendi horien artean, besteak beste, honako gailurrak nabarmentzen dira: Ipuliño, San Lorenzo – Larre, Larte, Arburu eta Hirumugarrieta.

Paisaia horiei bideek, pistek eta bidexkek osatzen duten sare zabala gehitzen badiogu, rogainea praktikatzeko eta naturarekin harremanetan jartzeko ingurune ederra sortzen da.

Aipatutako guztia gutxi balitz, proba honek aukera paregabe eskainiko du hamabost egun beranduago **Sierra de Neilan (Burgos)** jokatuiko den **2025eko Rogainig-eko Munduko Txapelketa** prestatzeko.

3. LEHIAKETA

Erabiliko den maparen hedadurak, probak iraun dezakeen denbora luzatzeko aukera ematen du. Modu horretan, Berastegiko Rogaineak bi modalitate izango ditu:

- **8 ordu:** IbeRogaine Ligarako puntuagarria. Nabigazioan eskarmentua duten, sasoi onean dauden eta estrategia diseinatzeko gaitasun handia duten parte-hartzaileei zuzenduta.
- **3 ordu:** Ez puntuagarria. Hasiberrientzat, familientzat eta neurrizko sasoi fisikoa dutenentzat aproposa, rogaingaren nabigazioan eta estrategian murgiltzeko aukera eskaintzen baitu. Aukera ezin hobe da aire zabaleko jarduera ludiko eta sozial batez goatzeko, muturreko erresistentzia-eskakizunik gabe.



Antolakuntzak GPS gailu batzuk emango dizkie 8 orduko modalitatean parte hartzen duten taldeei, ibilbideen jarraipena online eta denbora errealean eskaintzeko. Beste gailu mugikor batzuk, GPS edo interfazerik gabeko erlojuak izan ezik, antolakuntzak eskainitako sistema batekin zigitatuko dira.

Telefono mugikorrak gainean eraman beharko dira, segurtasun arrazoiengatik; baina behar bezala [zigitaturik eta itzalita](#). [Gomendagarria da telefonoaren atzealdean pasahitza edo patroia idaztea](#), taldeko edozein kidek desblokeatu ahal izateko.




4. KOKAPENA



Berastegi Euskadiko herri txiki bat da, Gipuzkoako probintzian kokatuta. Tolosa herriaren eta Nafarroako mugaren artean lekutua, Tolosaldea eskualdearen parte da. Herrialdearen hiriburua den Donostiatik 30 km-ra dago, hegoaldera. Eta Iruñetik 50 km ingurura.

GUNE ENBARGATUA

Informazio hau argitaratzen den unetik, guztiz debekatuta egongo da lehiaketa-eremura sartzea, arrazoiak edozein dela ere. Gune mugatua beheko kokapen-mapan laranja azaltzen dena da.



Mugatutako eremua eta probaren kokapen ezberdinak, mapa honetan ikus daitezke:

<https://www.google.com/maps/d/embed?mid=1DK-tleYPRsSkruVgqWBaGyAXim3lt7g&ehbc=2E312F>

Lehiaketa-gunea (CC) Berastegiko Herriko Enparantzaren egongo da kokatuta.

Herriak hainbat aparkaleku ditu, mapan azaltzen direnak. Gainera, herriko bertako beste tokietan ere aparkatu ahal izango da, betiere, jabetza pribatuak errespetatuz. **GARAJEETAKO SARRERAK EZ ITXI eta ANTOLAKETAKO KIDEEN JARRAIBIDEEI KASU EGIN.**

Autokarabanek San Martin elizaren ondoan beraientzat espresuki prestatutako aparkalekuan geratu beharko dira, derrigorrez ([kokapen-mapa](#) ikusi).



5. EGITARAUA

2025eko ekainak 21, larunbata

8 ORDUKO ROGAINEA

7:30 Lehiaketa-gunearen irekiera (CC) eta parte-hartzaileen harrera

Alokatutako SportIdent pintzak jasotzea

SportIdent pintzarako zigilua jasotzea (kide bakoitzeko bana) eta telefonoarentzat zigilu gisa erabiliko diren plastikozko poltsa eta brida jasotzea (talde bakoitzeko bana), eta talde bakoitzari GPS gailua jartzea

8:30 Materialaren azterketa

9:00 Lur-gogorraren itxiera

9:15 Briefing-a (probaren inguruko azalpen garrantzitsuak)

09:40 Mapen banaketa

10:00 8 orduko probaren irteera-ematea

18:00 8 orduko probaren helmugaratzea

18:30 Helmugaren itxiera

18:30 Afaria eta sari-banaketa

3 ORDUKO ROGAINEA

07:30 Lehiaketa-gunearen irekiera (CC) eta parte-hartzaileen harrera

Alokatutako SportIdent pintzak jasotzea

SportIdent pintzarako zigilua jasotzea (kide bakoitzeko bana) eta telefonoarentzat zigilu gisa erabiliko diren plastikozko poltsa eta brida jasotzea (talde bakoitzeko bana)

10:00 Telefono mugikorraren eta SportIdentaren zigiluen azterketa

10:40 Briefing-a (probaren inguruko azalpen garrantzitsuak)

10:50 Mapen banaketa

11:00 3 orduko probaren irteera-ematea

14:00 3 orduko probaren helmugaratzea

14:30 Helmugaren itxiera eta sari-banaketa

6. KATEGORIAK

8 ORDU

Araudiaren arabera, 8 orduko lehiaketan hainbat kategoria daude, eta kategoria horiek izango dira IbeRogaine Zilarrezko Ligako 3. proban aintzat hartuko direnak.

- **MO:** Gizonezkoen kategoria guztiak hartzen ditu
- **WO:** Emakumezkoen kategoria guztiak hartzen ditu
- **XO:** Kategoria misto guztiak hartzen ditu
- **JJ:** Juniorrak: taldeko kide guztiek 23 urte edo gutxiago izan behar dituzte eta ezin dute 24 urte bete lehiaketaren urtean
- **JA:** Juniorra/Heldua: kide batek 23 urte edo gutxiago izan behar ditu eta besteak 23 urte baino gehiago
- **MV:** Gizonezko Beteranoak: Taldeko kide guztiek 45 urte edo gehiago izan behar dituzte
- **WV:** Emakumezko Beteranoak: Taldeko kide guztiek 45 urte edo gehiago izan behar dituzte
- **XV:** Beterano Mistoa: Taldeko kide guztiek 45 urte edo gehiago izan behar dituzte
- **MSV:** Gizonezko Super Beteranoak: Taldeko kide guztiek 55 urte edo gehiago izan behar dituzte
- **WSV:** Emakumezko Super Beteranoak: Taldeko kide guztiek 55 urte edo gehiago izan behar dituzte
- **XSV:** Super Beterano Mistoa: Taldeko kide guztiek 55 urte edo gehiago izan behar dituzte
- **MUV:** Gizonezko Ultra Beteranoak: Taldeko kide guztiek 65 urte edo gehiago izan behar dituzte

- WUV: Emakumezko Ultra Beteranoak: Taldeko kide guztiek 65 urte edo gehiago izan behar dituzte
- XUV: Ultra Beterano Mistoa: Taldeko kide guztiek 65 urte edo gehiago izan behar dituzte

3 ORDU

- MO: Open Gizonezkoak: (adin mugarik gabe, gutxienez taldeko kideetako batek 18 urte gorakoa izan behar du)
- WO: Open Emakumezkoak: (adin mugarik gabe, gutxienez taldeko kideetako batek 18 urte gorakoa izan behar du)
- XO: Open Mistoa: (adin mugarik gabe, gutxienez taldeko kideetako batek 18 urte gorakoa izan behar du)

- Kategoria bakoitza jaiotze urtearen arabera ezarriko da. Hau da, parte-hartzaileak zehaztutako adina izan beharko du lehiaketaren urteko abenduak 31an.
- 18 urtetik beherako parte-hartzaileek 18 urte edo gehiago dituen kideren bat duen talde batekin aritu beharko dute.
- Hiru talde baino gutxiago dituzten kategoriak baliogabetu daitezke eta talde horiek goragoko kategorian kokatuko dira (Juniorrak Openean, Ultra Beteranoak Super Beteranoetan, Super Beteranoak Beteranoetan edo Beteranoak Openean).
- 18 urtetik beherako kideren bat duen taldeak, gutxienez, 18 urtetik gorakoa den beste kide bat izan behar du.

7. IZEN-EMATEAK

Izen-emateak 2025eko apirilaren 28an zabalduko dira parte-hartzaile guztientzat. Izena emateko bi epe zehaztuko dira:

- Lehenengo epea (merkeena) 2025eko ekainaren 1ean amaituko da, 23:59an.
- Bigarren epeak 5€-ko gainkostua izango du eta 2025eko ekainaren 14an amaituko da, 23:59an.

2025eko ekainaren 14an amaitzen den epetik kanpo ez da izen-ematerik onartuko. Probaren egunean bertan ere ezingo da izen-ematerik egin.

Izena emateko epea zabalik dago 2025eko apirilaren 28tik, eta [Deporticket](#) plataformaren bitartez burutu daitezke. Plataformak berak eta izen-ematearen ordainketak dituzten ezaugarriak direla eta, eskatzen dizuegu, mesedez, PERTSONA BAKAR BATEK osatu dezala talde osoaren izen-ematea. Talderen batek horrela egiteko justifikaturiko arazoren bat izango balu, antolakuntzarekin harremanetan jar dadila posta-elektroniko helbide honen bitartez: info@gotorientazioa.org

Izen-emateak jarraian duzuen estekaren bidez bete ditzakezue: <https://eu.deporticket.com/web-evento/11193-rogaine-de-berastegi>

Kuotak

> Kuota, pertsonako, ekainaren 1a arte, 23:59an

Iraupena	Federazio-lizentzia dutenak (Mendikoa EMF edo orientaziokoa FEDO)	Federazio-lizentzia gabekoak (3 € eguneko segurua)
8 ordu	27 €	30 €
3 ordu	17 €	20 €

> Kuota, pertsonako, ekainaren 14a arte, 23:59an

Iraupena	Federazio-lizentzia dutenak (Mendikoa EMF edo orientaziokoa FEDO)	Federazio-lizentzia gabekoak (3 € eguneko segurua)
8 ordu	32 €	35 €
3 ordu	22 €	25 €

Izen-emateko kuotak beregain hartzen ditu segurtasun GPSa (probaren egunean zuzeneko jarraipena egiteko) eta helmugako anoa. Gainera, 8 orduko proban parte hartzen dutenei afaria eskainiko zaie, proba amaitutakoan.

8 orduko probako parte-hartzailearen batek SportIdent (SI) txartelik ez badu, izen-ematea betetzeko orduan eskatu ahal izango du, 5€-ko alokairua ordainduta. (Lasterketaren egunean jasoko du eta 50€-ko fidantza ordaindu beharko du edo NAN utzi)

3 orduko probako parte-hartzailearen batek SportIdent (SI) txartelik ez badu, izen-ematea betetzeko orduan eskatu ahal izango du eta DOHAINIK utziko zaio. (Lasterketaren egunean jasoko du eta 50€-ko fidantza ordaindu beharko du edo NAN utzi)

Alokairuan hartutako SI txartelen kasuan, haren galerak edo hondatzeak fidantzak emandako 50€-en galera suposatuko du eta diru hori antolakuntzak jasoko du, galdutako edo hondatutako txartela ordezkatzeko.

EMF (Euskal Mendizale Federazioa) edo FEDO (Federación Española de Orientación) erakundeen bidez federatuta ez dauden parte-hartzaileek eguneko lizentzia eskuratu beharko dute, 3 € ordainduta.

SI txartelaren alokairua eta eguneko lizentzia, izen-ematearekin batera ordainduko dira.

◆ **Kronometrajea**

Talde bakoitzaren denbora neurtzeko modua **SportIdent Sistema** izango da. Beraz, izena ematerako orduan, proban erabiliko den SI txartelaren zenbakia eman beharko da, eta ez duenak, alokairua eskatu beharko du.

60 kontrol egongo dira proban, bai motzan nola luzean. Beraz, kontuan izan SI modelo guztiek ez dutela balio, denek ez baitute "pikada" kopuru hori jasotzeko edukiera nahikoa. Probarako baliagarriak diren SI modeloak hauek dira: SI-6, SI-10, SI-11 eta SIAC. Posible da edukiera txikiagoa duten beste SI modelo batzuk erabiltzea (SI-5, SI-8 eta SI-9), baina beti izango da taldearen ardura bisitatu ditzakeen kontrol kopuru maximoa aurreikustea.

Sportident txartel bakoitzak duen gehienezko "pikada" kopurua erakusten duen taula:

Tipo de Tarjeta SI-Sportident	Número Máximo de Picadas
pCard	20
SI-Card5	30 (+ 6 adicionales con código y orden solamente)
SI-Card8	30
SI-Card6	64
SI-Card9	50
SI-Card10	128
SI-Card11	128
SIAC (SPORTident ActiveCard)	128

Kontrol-gune guztiek SportIdent basea, pintza tradizionala eta balizaren zenbakizko kodea izango dute.

GARRANTZITSUA: Kirolari bakoitzaren ardura izango da balizaren zenbakia ziurtatzea eta kontrolak modu egokian jasotzea (argi- eta soinu-seinaleak). SI basea ondo ez badabil, bakarrik onartuko da mapan klikaturiko pintza tradizionala onartuko da soilik. Baliza ez balego (desagertuta badago), telefonoari zigilua kenduko zaio eta argazki bat egingo zaio kontrolaren kokapen tokiari.

Parte-hartzaile guztien ardura izango da beraien SI txartelak **GARBITZEA** (*clean*) eta **EGIAZTATZEA** (*check*), proba hasi aurretik.

Taldeko kide bakoitzak bere SI txartela eduki beharko du. Taldeko kide guztiek "pikatu" behar dituzte kontrolak, gehienez, taldekideen arteko minutu bateko tartearekin, kideen ordenak axola gabe.

Lasterketa bertan-behera uzten duten taldeek, derrigorrez, helmugako mahaitik pasa beharko dira, antolatzaileei egoeraren berri emateko. Modu horretan, antolatzaileek lasterketan dauden kide guztien jarraipena egin ahal izango du.

8. NORMATIVA

Probarako arauak Iberogaine elkarteak ezarritako arauen arabera ezarriko dira.

LEHIAKETA-ARAUAK. IBEROGAINE elkarteak

Portaera-arauak eta penalizazioak

1. **Ingurugiroa errespetatzea**
 - Nahitaezkoa da ingurune naturalarekiko jarrera arduratsua eta errespetuzkoa izatea lehiaketak irauten duen denboran.
 - Debekatuta dago etxe-abereengan eragitea, basa-faunaren portaera aldatzea edo landaredia kaltetzea.
 - Ibilbidea ahalik eta zarata txikiena ateraz egin beharko da, ekosistemarengan eragina ahalik eta gehien murriztuz.
 - Ibilbidean zehar, debekatuta dago zaborra botatzea (bilgarriak, ontziak, janari hondarrak...). Parte-hartzaile bakoitzak bere hondakinak jasoko ditu eta hartara prestatutako edukiontzietan botako du, lehiaketa-zentroan.
 - Debekatuta bezala azaltzen diren guneak ezingo dira zeharkatu; ezta arriskuan daude ingurumen-guneak ere.
 - Arau hauen kontra egiten duen edozein jarrera, lasterketatik kanporatzeko arrazoia izango da.
2. **Normas Generales de Participación**
 - Araudiak berak edo antolakuntzak ezarritako arauak ez errespetatzeak. Taldekideren baten edo talde osoaren kanporatzea ekar dezake.
 - Jabego publikoen zein pribatuen kontrako jarrerak ere zigortuko dira.
3. **Egoera klimatikoak**
 - Lasterketa aurrera eramango da, egoera klimatikoa edozein dela ere.
 - Eguraldi kaltegarriko egoeran, antolakuntzak aukera izango du proban aldaketak egiteko edo bertan behera uzteko, parte-hartzaileen segurtasun jokoan dagoela ikusiko balu.

4. Puntuazio sistema

- Kontrol bakoitzak puntuazio jakin bat izango du, kokapenaren zailtasunaren arabera edo zailtasun fisiko edo teknikoaren arabera.
- Kontrolaren balioa bere zenbakiaren hamarrekoa izango da. Adibidez: **34** kontrolak **3** puntu emango ditu; **87** kontrolak **8** puntu.

5. SPORTIdent txartelaren erabilera

- SPORTIdent txartela eskumuturrean lotuta eraman beharko da, antolakuntzak emandako zigiluaren bitartez. Zigilu hori proba hasi aurretik banatuko da.
- Zigilu hori baimendutako pertsonak kenduko dute soilik, proba amaitzean, SportIdent-a deskargatzeko eremuan.
- Aipatu une horren aurretik zigilua apurtuko balitz, talde osoa kanporatua geratuko litzateke.

a. Taldeak**Talde parte-hartzaileen arauak****1. Taldearen eraketa:**

- o Talde bakoitza **2 eta 5** kideen artean osatuko da.
- o Segurtasuna dela eta, debekatuta dago bakarka parte hartzea.

2. Lesioak edo lasterketa uztea:

- o Taldekide batek mina hartzen badu edo lasterketa uzten badu, taldeak jarraitu ahal izango du, baldin eta, gutxienez, **bi kide** geratzen badira eta minutuko pertsonaren segurtasuna ziurtatu dutenean.
- o Talde horrek ez du probaren ranking-ean puntuaziorik jasoko.

3. Taldean mugitzea:

- o Taldeko kideak elkarrekin ibili behar dira beti, beraien arteko banaketa, gehienez, **20 metrokoa** izango delarik.
- o Kontrol-guneetara iristean (baliza "pikatzean"), taldeko lehen eta azken kideen arteko tartea, gehienez, **minutu batekoa** izango da.
- o Arau hauek ez betetzea, kanporatzea arrazoia izango da.

4. Autonomia:

- Taldeak autosufizienteak izango dira urari, janariari eta arropari dagokionez.
- Taldeko kide guztiek antolakuntzak derrigortutako material guztia eraman beharko du berarekin, probak irauten duen denbora guztian zehar.

5. Taldeen arteko elkarlana:

- Ez dago onartuta talde ezberdinak elkarrekin eta batera aritzea, segurtasun arrazoiengatik ez bada.
- Ezin da kanpoko edo beste talde baten laguntzarik jaso. Soilik larrialdi edo segurtasun egoeratan.
- Prohibido el uso de medios mecánicos para desplazarse.

6. Geolokalizazio duten gailuak:

- Guztiz debekatuta dago edozein GPS edo komunikazio sistema erabiltzea.
- Ezingo da erabili lehiaketako ofiziala ez den beste edozein mapa.
- Mapak erakusteko aukera eskaintzen duten gailuak ez daude onartuak.

b. **Puntuazioa eta penalizazioa**

IbeRogaine elkartearen araudiak definitzen duen bezala, helmugaratzen den azken taldekidearen denbora izango talde osoaren denbora ezarriko duena. Zehaztutako amaiera ordua baino beranduago helmugaratzen diren taldeek penalizazioa jasoko dute. Penalizazio hori modu horretan zehaztuko da:

1"-tik 5'-ra	-5 puntu
5' 01"-tik 10'-ra	-10 puntu
10' 01"-tik 15'-ra	-20 puntu
15' 01"-tik 20'-ra	-30 puntu
20' 01"-tik 25'-ra	-40 puntu
25' 01"-tik 30'-ra	-50 puntu
30' baino gehiago	Taldearen deskalifikazioa

Azken puntuazioa bisitatutako eta baieztatutako kontrolen puntuazioen batura izango da. Horri, berandu helmugaratzearen penalizazio kendu beharko zaio, hala badagokio.

Bi taldek puntu kopuru bera izango balute, irabazlea izango da denbora gutxien erabili duena. Modu horretan berdinketa mantenduko balitz, kontrol-gune gehien bisitatu eta baieztatu dituen taldeak irabaziko luke.

c. *Derrigorrezko materiala*

Talde guztiek derrigorrezkoa izango den material jakin bat eraman beharko dute beraiekin probak irauten duen bitartean. Material hori antolakuntzak egiaztatuko du irteera eman aurretik. Derrigorrezkoa den material horretako elementuren bat faltan izanez gero, taldea deskalifikatua gera daiteke.

Ez da onartuko derrigorrezko material hori proban zehar alde batera uztea. Derrigorrezko materiala proba amaitu ondoren ere gainbegiratua izan daiteke, eta elementuren baten falta izateak kanporatzea ekarriko luke.

★ Derrigorrezko materiala:

8 ORDU

→ *Taldekilde bakoitzak*

- ◆ Txilibitua
- ◆ Motxila
- ◆ Hidratazio sistema, gutxienez litro batekoa (1 L)
- ◆ Janaria eta larrialdirako hornidura
- ◆ Euritik edo haizetik babesteko txaketa (*proba baino egun batzuk lehenago baieztatuko da*)
- ◆ Kopetako-linterna pila berriekin edo bateria guztiz kargatuta duela
- ◆ SI txartela eskumuturrean lotuta, antolakuntzak emandako zigiluaren bidez
- ◆ Antolakuntzak emandako mapa

→ *Talde bakoitzak*

- ◆ Erlojua
- ◆ Antolakuntzak emandako GPS gailua (galduz gero, 150 € ordaindu beharko zaizkio antolakuntzari)
- ◆ Telefono mugikorra. Guztiz kargaturik eta itzalirik eramango da eta uneoro zigilatua egongo da
- ◆ Lehen sorospenerako kit-a (gaza esterilak, tiritak, esparatrapua eta likido aseptikoa)
- ◆ Manta termikoa
- ◆ Iparorratza

GPS duten edo mapak bistaratu ditzaketen gailuak zigilatuta eraman beharko dira.

3 ORDU

Hiru orduko lasterketa herrikoiarentzat EZ da derrigorrezko materialik ezarriko. Hala ere, gomendagarria da hidratatzeko eta larrialdi egoeran erabiltzeko materiala eramatea.

Kategoria honetako partaide guztiek SI txartela eskumuturrean zigilatuta eraman beharko dute, derrigorrez. Baita iparorratza nola mapa ere. Gutxienez, talde bakoitzak telefono mugikor bat eraman beharko du, itzalirik eta zigilatuta.

9. INFORMAZIO TEKNIKOA

Mapa

Kartografiatutako eremuak 21 Km²-ko azalera hartzen du. Mapak orientazioko sinbologia erabiltzen du eta Roberto Pascual "Paski"-k egin zuen 2023ko neguan. Maparen inprimatze eskala 1:20.000koa da, eta urrunkidetasuna 10 metrokoa. Taldekide bakoitzak mapa bat jasoko du.

Bi probetako mapak ez du izango legendarik. [Hemen](#) deskargatu ahal da. Hala ere, bai izango ditu kontrolen deskripzioak, IOF sinbologiadunak. Horiek [hemen](#) deskargatu ahal izango dira.

Hiru orduko probarako testu bidezko kontrolen deskripzioa [hemen](#) deskargatuk ahalko da.



Ibilbideak


60 kontrol egongo dira, bai 8 orduko nola 3 orduko probetan. Puntuazioa ezaugarri hauen arabera ezarri da: zailtasun teknikoak, zailtasun fisikoak, beste kontrolengandik duen gertutasuna eta desnibela.

Kontrol bakoitzaren balioa bere kodearen hamarrekoak ezarriko du. Adibidez: **34** kontrolak, 3 puntu emango ditu; **87** kontrolak, 8 puntu; **100** kontrolak, 10 puntu.

Mapan azaltzen diren GI-2130 eta A-15 errepideek arreta berezia eskatzen dute. GUZTIZ DEBEKATUTA dago bi horietatik IBILTZEA eta soilik zeharkatu ahalko dira espresuki horretarako ezarritako puntuetatik. Debeekatutako gunean magenta kolorez adierazita egongo dira dagozkien sinboloekin, bi errepide horietan.

A-15 errepidea zeharkatu ahalko da mapan azalduko diren lur-azpiko 5 pasabideetako edozein erabiliz, edo gainetik zeharkatzen duten bideetatik. Horrek garrantzia izango du azken estrategia diseinatzeko orduan.

Arau hau betetzen ez duen taldea kanporatua izango da.



Ganaduarentzat eta nekazaritzarako lurrak inguratzen dituzten hesietako asko ez dira mapan azaltzen. Bakarrik garrantzitsuenak azalduko dira eta zeharka-ezinak izango dira.


MESEDEZ! ZELAIK ERRESPETATU ETA EZ SAIATU HESIAK ZEHARKATZEN EDO GAINETIK SALTO EGITEN. BATEZ ERE, HERRI INGURUAN AURKITZEN DIRENAK.

Estrategia egokienak ez dira lortuko hesiak zeharkatuz, beraz, horrek ez dizue inongo abantailarik emango.

Maparen eremu batzuk eremu zabaleko sinboloaz marraztuta azalduko dira.



Eremu horrek perimetro poligonalak badu, esan nahiko du, ziurrenik, hesi batez inguratuta dagoela. Saiatu horiek saihesten!



Kartografoaren oharrak (Roberto Pascual “Paski”)

Berastegik atsegin handiz harritu ninduen, Gipuzkoan hain irisgarriak eta lauak diren basoak aurkitzea ezohikoa baita. Bide eta ibilbide sare trinko bat eta habitat sakabanatu batzuk ditu, nahiz eta biztanleria gunea Berastegi inguruan kontzentratzen den.

Morfologikoki, HE-IM norabidea duen bailara bat da, errepide zaharra bertatik doalarik. Mendilerroa osatzen duten bi goragune ditu, 400-500m ingurukoak IEn; eta beste hainbat haran eta 300-400m-ko goragune HMra ausaz zabalduta.


Kartografiari dagokionez, bakarrik aipatu ez direla marraztu ez hesiak eta ezta txondorrak ere; eta eroritako zuhaitzak eta baratutako zuhaitzak soilik marraztu dira handiak direnean edo batzuk elkarrekin daudenean.

Marroi ilun koloreko hanka luzedun ertz lodia erabili da lurrezko ertzak adierazteko, baina soilik ertz horien garaierak eta bertikaltasunak pasaezin bihurtzen dituztenean.

Azkenik, landaredia baxuaren marrazte trinkoa pasaezina da, batez ere urteko sasoi honetan, non landareak gehiago hazten diren. Kalkulatu zailtasun maila bat gehiago landaredi eremu hauetan, mapa kartografiatu zenetik (2014ko udaberria).

Estrategia diseinatzeko orduan jokoa emango duen eremua da eta baso mota anitzetara eramango zaituzte: hariztiak, pagadiak, mota ezberdinetako landatutako koniferoak eta hostotsuak, hainbat lapiaz, Leitzaran erreka aldera jaitsiera sakonak, zelai asko eta giza-eragina edozein txokotan. Baina hoberena etorriko da gailurren batera igo eta inguratzen zaituzten paisaia ikusten duzuztenean.

Simbologia



Sinbolo honek ez ditu soilik ildaskak edo zangak adierazten, baizik eta, batez ere, baso-lanak egin eta gero utzitako bideak adierazten ditu. Horiek terrenoan ikustea erraza izango da, mendi-hegaletan utzitako eremu lauengatik. Zanga txiki batetik joateak ez du abantailarik bertatik ez joatearekin konparatuz gero; eremu lauago batetik joateko aukera emango du, mendi-hegaletik garaiera mantenduz joan beharrik gabe.

	Muino txikia
	Muino luzea

Horrelako sinbolo gutxi dago, beraz, horietakoren bat txikia izan daiteke.

	Depresio
	Depresio txikia
	Zuloa

Nik depresioa erabiltzen dut hura 25 x 25 metroko zabalera edo gehiago duenean, edo 10 metroko sakonera duenean. Depresio txikiaren edo zuloaren sinboloa erabiltzen dut bere neurrietako bat aurrez aipatutako horietako batera iristen ez denean. Depresio txikiaren eta zuloaren arteko ezberdintasuna forman datza: lehenak U forma du eta bigarrenak V forma. Depresio txikiak zabalera handiago du sakonera baino eta zuloak, aldiz zabalera eta sakonera bertsuak ditu, edo sakontasun handiago du zabalera baino.

	Ubide txikia
	Ubide zingiratsua

Bakarrik esan ubide batzuk zingiratsu gisa azaldu daitezkeela, argi ez badago jariorikdutenik.

	Ertz pasaezina
	Ertza / harkaitz blokea
	Harkaitz edo ertz pasagarria

Sinbolo honen zabalera ez du pasatzeko egokitasunean eragiten, soilik bere bertikaltasunaren tamaina. 2 eta 5 metroko altuera badu, sinboloa fina izango da. 10 metro edo gehiagokoa bada, sinboloa zabala izango da. 5 eta 10 metro artekoen kasuan, beste aldagai batzuk hartuko dira kontuan, batez ere irakurketa errazte aldera. Horrela, sinbolo fina erabiliko da mapa ulergarria izan dadin, bere gertu beste sinbolo asko dauden kasuetan.

• ▼ Zulo harritsua

“V” beltz batek adierazten du zuloa edo harritzko arrail dagoela eta arriskutsua dela. V formako irudia izateko tamaina txikiegia badu, magenta kolorekoa puntua erabiltzen dut, duen arriskua adierazteko. Eremuan dauden arrakala guztiak ez daude mapanirudikaturik, beraz, kontuz ibili beharko da lapiazaren zonaldean.

	Lapiaz eremu iraganeiza
	Ibiltzeko zaila den lapiaz eremua
	Korrika egiteko zaila den lapiaz eremua
	Lur arrokatua

Lehen hiru sinboloak eremu honetarako sortu dira, espresuki. Zonalde karstikoak. Kareharriko zonaldeak, non lurrak eta arrokek zail egiten duten hura zeharkatzea, puntu gris edo purpurazko bilbe bidez marraztu da; edo arroka-gunea bezala baina purpura kolorez, eta ez beltzez. Hiru sinbolo horiek igarotasun maila ezberdina adierazten dute, jarraian zehazten den moduan.

- Kolore griseko bilbeak lasterketa zailetik ezinezkoa bitarteko tartea hartzen du. Hobe da oinez egitea. Galdera honekin laburbildu daiteke: “Non jarri ditzaket oinak?”
- Purpura koloreko saretxoak ezinezkoa da korrika egitea den eta ibiltzea zaila den tartea hartzen du, eta erantzun beharreko galdera hau litzateke: “Non jarri ditzaket eskuak?”
- Azkenik, purpura koloreko arroka-guneak ibiltzea oso zaila den eta pasatzea ezinezkoa den tartea hartzen du, eta arriskua izan dezake arreta jartzen ez baduzu. Galdera izan daiteke: “Nola arraio aterako naiz hemendik?”

Proban arrakasta edukitzeko, oso garrantzitsua izango da kontuan hartzea lapiaz eremuek nola eragiten dioten gure lasterketa abiadurari. Eremu horiek gurutzatzea ala ez izango da estrategia diseinatzeko orduan hartu beharreko erabakietako bat.

———	Bidea
-----	Bidexka
-- --	Gutxi ikusten den bidexka
———	Gurdibidea

Bide horiek guztiek ohikoak diren ñabardurak dituzte, baina nabarmendu nahi dut gurdibideak ildaska txiki baten oso antzekoa izan daitekeela, biak mendi-lanetako emaitza direnean. Bien arteko ezberdintasun bakarra hau da: gurdibideak laguntza handiago ematen du bertatik korrika egiteko, berriagoa delako eta ildaska baino garbiagoa dagoelako.

———	Hesia
———	Eroritako hesia
———	Hesi altua

Mapan ez dira hesi "normala" marraztu, nahiz eta eremu honetan horietako asko egon. Solik adierazi dira hesi altuaren sinboloaz 2 metrotik gorako hesiak.


° x	Gizakiak sortutako elementua
-----	------------------------------

Gizakiak sortutako elementu nagusiak txabolak eta karobiak dira, bai zutik daudenak nola eraitsita daudenak.

	Eremu zabala
	Eremu zabala zuhaitz sakabanatuak dituen
	Eremu zabala zuhaixkak dituen
	Eremu zabala zuhaixkak eta zuhaitz sakabanatuak dituen

Lehen bi sinboloek zelai perfektua adierazten dute, jardin baten modukoa, motza eta zuhaixkarik gabea. Korrika egiteko oso-oso azkarra.

Beste biek altuera ertaina duen belarra adierazten dute. Bertan, ote edo sasi txiki batzuk topa daitezke eta, batez ere, garoa.

	Basoa: lasterketa erraza
	Basoa: lasterketa mantsoa
	Sastraka: lasterketa mantsoa
	Basoa: korrika egiteko zailtasuna
	Sastraka: korrika egiteko zailtasuna
	Landaretza: oso zaila korrika egitea, pasaezina

Kolore zuriak baso perfektua adierazten du, sastrakarik gabea eta lasterketa azkarra egiteko aukera ematen duena. Baso hauetan, lasterketa mantso dezaketen garoak topa ditzakezue.

Lehen berde solidoak, suabeenak, ikusgaitasunari egiten dio erreferentzia, eta ez igarotzeko moduari.


Bigarrenak, tarteko berdeak, ikusgaitasunari eta korrika egiteko ematen duen aukerari egiten die erreferentzia. Lasterketa zaila da.

Berde ilunak esan nahi du zonalde horietan oso zaila edo ezinezkoa dela ibiltzea.


Jakina, mapan erabilitako koloreak elkarturik egon daitezke eta lasterketa motari eta ikusgaitasunari eragiten dioten eremu ezberdinez osatuta egon daitezke. Baina, orokortze behar bati jarraituz, horietako kolore bakarra erabiltzea erabaki da.

Horrexegatik, kolore bakarreko eremua zenbat eta handiagoa izan, beste kolore batzuk ere bertan sartu izateko aukera ere handitzen da. Orokorrean, ñabardura horiek ez dute zertan akats sortzaile izan behar, rogaining-eko mapetan ez baita ohikoa lasterketa erraztasuna adieraztea. Horren ordez, gainbalioa izan beharko litzateke sorpresarik gabeko estrategia diseinatzeko orduan.

Azkenik, marraz adierazitako guneak lasterketari eragiten dioten dioten eremuak dira, eta ez, ordea, ikusgaitasunari. Dentsoenak modu garrantzitsuan eragiten du; eta dentsitate gutxiagokoak, gutxi eragiten du. Azken hori eremu handietan erabiliko da soilik, halakorik bada.



Zirkulua zuhaitz handi bat edo basotxo txiki bat da. Puntua zuhaitz txikia edo ertaina da. Gurutze berdeak eroritako zuhaitz nabarmena adierazten du, orokorrean, sustraiak airean edo bistan dituenak.



Jabeek zeharkatzeko baimenik eman ez duten soroetarako erabiltzen da. Orokorrean, hesiturik egon ohi dira eta ez zaitezte saiatu horiek zeharkatzen, kanporatze arrazoia izango baita.

Trazatzailearen / Zuzendari teknikoaren oharrak (*Txemi de los Dolores*)

Toki batek hunkitzen zaituenean eta lehen begirada batean deitu egiten zaituenean, kasu egin behar diozu. Hori izan zen nire "bat-bateko maitemintzea" Berastegiko bide eta basoen barrena ibili nintzen lehen aldian.

Une horretan bertan, nire buruan sortu zen bertan rogaire bat antolatzeko ideia. Bost urte igaro dira ordutik eta, azkenik, larunbat honetan aurkeztu ahal izango dizuet bailara liluragarri eta xarmagarri hau.

Ordu askotan zehar ibili naiz inguru honetatik zuekin partekatu nahi ditudan "txokoak" aurkitzeko, beti ere, gogo handiz eta ilusioz beterik. Baita ere esfortzuz, denbora eskainiz eta arduraz, beti atsegin handiz.

Dagoeneko eremua deskribatua izan da eta onartu beharra daukat kartografoak dohain bereziak dituela topatuko dituzuen elementu eta ñabardurak irudikatzeko. Berastegiko basoek ezaugarri bereziren bat badute, hori euren aniztasuna da. Azkar aritzeko aukera ematen duten gunee baxuetako bide eta xendetatik hasi, eta abiadura moteltzera derrigortuko duten desnibel eta zailtasun altuagoko tokietan amaituz. Tartean, orinoco-amazoniarr begetazioko gunee pasaezinak, zehaztugabeko lapiaz nahasia, moketa moduko belarra duten pago eta alertze basoak eta, batez ere, Berastegiko landa izaera erakusten duten giza-aktibitatearen hondarrak. Orokorrean, estrategia ezaugarri nagusia izango da rogaire honetan. Estrategia egokia diseinatzea, desnibela ondo kudeatuz, arrakastarako bidea izango da. Kontuan hartu, 8 ordutan metatutako desnibelak eragina izan dezakeela nekean, nahiz eta kontrolak bata bestaren oso gertu egon. 60 kontrol topatuko dituzue mapan sakabanaturik, talde bakar batek ere 8 ordutan guztiak bisitatzea ezinezkoa izango duen moduan kokaturik.

Zorionez, mapan **19** puntu izango dituzue **ur edangarria** topatzeko. Horrek zuen esfortzuan lagunduko du, kontrolak bilatzen jarraitzeko orduan. Baina ez zaitezte lokartu, helmugara garaiz eta denbora epean iristea zaila gerta dakizueke, batez ere urrun dagoen zonalde batean bazabiltzate.

Azkenik, disfrutatu dezazuela, gutxienez, trazatua diseinatzen disfrutatu dudana bezainbeste. Nahiz eta, brometan esan ohi dudana bezala, "ia nireak egin zuen."

Animo piloa guztiontzat eta oso ondo pasa dezazuela!

10. GPS BIDEZKO JARRAIPENA

Segurtasun protokoloa betetzeko eta probaren zuzeneko eta online jarraipena egiteko, antolakuntzak GPS gailuak banatuko dizkie **8 orduko** probako talde parte-hartzaileei. Taldeak lehiaketa-gunetik (CC) pasa beharko dira GPS gailuak jasotzeko.

Hona hemen probaren jarraipena zuzenean egiteko esteka:

<https://nonstopaventura.tracktherace.com/es/eventos-deportivos/orientacion/rogaie-berastegi>

GPS gailua zigilatuta eramango da motxilaren barruan eta bertatik aterako ahalko da soilik larrialdi egoera batean.

Segurtasuna

Gailu bakoitzak "SOS" botoi bat du, **larrialdi kasuan** erabili ahal izango dena.

Botoia sakatutakoan, SMS-SOS mezu bat bidaliko da zuzenean antolakuntzako telefonora, taldearen latitudea eta longitude zehaztuz eta mapa batean posizioa emanez.



Mesedez, gogoratu helmugatzerakoan eta pintza deskargatzeko momentuan, GPS gailuak itzuli behar dituzuela.

11. ZERBITZUAK

- Lur gogorra (*suelo duro*) Berastegi ikastolaren gimnasioan egongo da kokatuta. Erabilgarri egongo da ostirala 20ko arratsalde-gau partetik igandea 22ko goiza arte. Zerbitzua behar izanez gero, izena ematerako orduan eskatu beharko da (2 €-ko kostua du), eta honako [galdetegi](#) hau bete beharko da. Galdetegia probako webgunean ere topatu daiteke.
- Proba amaitzean, **dutxak** erabilgarri izango dira Berastegiko ikastolako gimnasioan eta frontoian.
- Autokarabanentzako **parkinga**: San Martin elizaren ondoan ibilgailu hauentzat prestatutako gunean aparkatu beharko dute, derrigorrez ([kokapen-mapa](#) ikusi).
- Amaieran, **afaria** eskainiko zaio **8 orduko** probako parte-hartzaileei, Berastegiko frontoian.

12. EPAIMAHAI TEKNIKOAK

- Izaskun Etxeberria Sarasibar (parte-hartzaile)
- Pablo Fernández Liria (parte-hartzaile)
- Joseba Iñaki Calzada Mendiguren (parte-hartzaile)
- Itziar Quintana Saenz (parte-hartzaile)

13. OSTATUAK

Berastegin eta Tolosaldean ostatu bila bazabiltza, jarraian dituzun estekak begiratu ditzakezu:

[BAZTERRETXE landetxea](#) (Berastegi)

[ARGIÑENEA etxea](#) (Berastegi)

[Tolosaldea Turismoa](#)

Leitzako herri nafarra eta bere inguruak lehiaketa-gunetik gertu daude eta bertan ere topatu daitezke hainbat ostatu. Begiratu dezakezu hurrengo estekan:

[Plazaola Turismoa](#)

14. ORGANIGRAMA

Antolakuntza Taldea	
Zuzendari Teknikoa	Txemi de los Dolores
Kartografoa	Roberto Pascual "Paski"
Trazatzailea	Txemi de los Dolores
Sportident	Borja del Estal Ainhoa Laffage
Komunikazioa	Joseba Karrikiri Urko Mitxelena

15. LAGUNTZAILEAK

